

Nafarroako Lanbide Heziketako PLAN ESTRATEGIKOA

2017-2020

Urteko Jarraipen Txostena 2019



Lanbide
Heziketa
NAFARROA

NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETAREN PLAN ESTRATEGIKOA - 2017/2020

URTEKO JARRAIPEN TXOSTENA 2019

Nafarroako Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa Gobernuaren 2018ko abuztuaren 29ko erabakiaren bidez onetsi zen, helburu nagusia izanik erantzuna ematea Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (S3) planteatutako erronkei, ezagutzan oinarritutako ekonomia bateranzko eskualdeko garapen eredu gisa, gainera, oso presente edukiz zein erantzukizun garrantzitsua duen lanbide heziketaren sistemak, prestakuntzak gizartearen eta hezkuntzaren aldetik duen osagaiari dagokionez eta gure komunitatean gizartearen eta lurraldearen kohesioari ekarpena erabakigarria egin beharri dagokionez.

Plana hiru jarduketa ardatz estrategikoren inguruan egituratu zen:

- 1. ardatza: Lanbide Heziketa, Nafarroa S3 espezializazio adimentsuaren estrategiaren euskarri.
- 2. ardatza: Gure gizartearen kohesioa eta jasangarritasuna sendotzeari egindako ekarpena.
- 3. ardatza: Lanbide Heziketa indartu eta etengabe eguneratzea.

Hiru ardatz hauetan garatu beharreko 16 helburu eta 57 jarduketa jasotzen dira, beren berariazko inpaktu-adierazleekin.

Plan Estrategikoaren esparruan garatzen diren jarduketak Lanbide Heziketaren eremura hertsiki mugatzen ez badira ere, agerikoa da ikasturtearen antolaketa kronologikoak eragin erabakigarria duela plan honetan planteatutako helburuen emaitzetako asko eskuratzeko moduan. Horregatik, txosten honen aurkezpenaren egiturak hitzez hitzezko aipua egiten dio Plan Estrategikoaren dokumentu publikoan planteatutakoari; aldiz, orain arteko exekuzioaren emaitzak modu diskurtsiboagoan aurkezten dira, haien interpretazioa errazagoa izan dadin eta egoki iritzitako ñabardurak eta argipenak sartu ahal daitezen.

Hurrengo orrialdeetan Nafarroako Lanbide Heziketaren 2017/2020 Plan Estrategikoak 2019. urtean izan duen egikaritzearen inguruko informazioa bildu da, hura definitu zuten hiru ardatz estrategikoen arabera egituratuta.

1. ARDATZA: Lanbide Heziketa, Nafarroa S3 espezializazio adimentsuaren estrategiaren euskarri.

Ardatz honek jasotzen ditu heldu beharreko helburuak eta gauzatu beharreko jarduketak, prestakuntza eskaintzak lotura izan dezan Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian lehentasunezkoztat jotzen diren produkzio arloen beharrekin.

1.1. helburua

Nafarroa S3 Estrategian lehentasunezkoztat jotako jarduera ekonomikoko arloetan Lanbide Heziketaren gaineko baliabideak handitzea

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Lanbide Heziketaren aurrekontuaren ehunekoa Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako lehentasunezko jarduera		% 75
Arlo horretan prestakuntza zikloak egiten dituzten ikasleak.		8872
Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren eremuekin lotutako prestakuntza ikastaroen kopurua Lanbide Heziketako ikastetxeetan.		105

2019. urtean, Nafarroako inguru sozioekonomikoan gertatzen ari zen garapenarekin bat etorritik, hezkuntza sistemako lanbide heziketako baliabide gehienak Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian definitutako eremu lehenetsietan bildu ziren; izan ere, 2019-2020 ikasturte hasieran eskaintako erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetako eskaintzaren igoeraren ehuneko ehun eremu lehenetsi horietan bildutako familia profesionaletakoak izan zen; halaber, ekipamenduan egindako inbertsioaren % 80 baino gehiago lehentasunezko eremu horietan baliabideak jartzeko erabili zen. Badira beste inbertsio batzuk ere, esaterako espazioak egokitu eta azpiegiturak hobetzeko egindakoak; horien kasuan ezin da jarduera eremuekin korrespondentzia argirik ezarri eta, horregatik, balorazio hau egiterakoan ez dira kontuan hartu. Horrenbestez, aurrekontu ahalegina hartu duten eremuak aztertzeke aipatutako lehen elementuak baliatuz gero, zalantza izpirik gabe esan daiteke S3ren eremu lehenetsietan izan dela % 80tik gora, eta 4.0 industriarekin lotutako ekipamenduen hornidura kapitulu honen inbertsio osoaren % 40 inguru hartu zuela.

Jarduera lehenetsietako eremuetako heziketa zikloak ikasten ari diren ikasleei dagokionez, 2018-2019 ikasturtean proportzioak berdin jarraitu du aldaketa nabarmenik gabe aurreko ikasturtearekin alderatuta; igoera arina izan da % 59,25ra arte, 6.300 ikasle pasatxorekin. Inpaktuaren adierazleetan proposatutako balioekiko itxurazko desadostasun horiren arrazoa da azken horiek S3n sartutako familia profesionaletan ikasketak egiten dituzten ikasleen zenbaki absolutu moduan aurkeztu izana, eta txosten honetan nahiago izan da informazioa zehaztea, espezializazio adimentsuaren estrategiarekin berariaz lotutako heziketa zikloak egiten dituzten ikasleen ehunekoa ekarrita.

2018. urteko egikaritze txostenean azaldu bezala, enplegurako prestakuntzari dagokionez, irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzean, Lan arloko enplegurako lanbide heziketaren sistema arautu

zuen, hezkuntza administrazioaren mende dauden ikastetxeen parte hartzeak eztabaidagarria izaten jarraitu du eta, ondorioz, enplegurako prestakuntza ekintza horietan ia ez zen parte hartu, nekazaritzako elikagaien industrian eragiketa osagarrien profesionaltasun ziurtagiria lortzeko ikastaro bat baino ez baitzen irakatsi, langabetuei zuzendutakoa. Legegintzaldi hau hasteak ikuspegi berria ekarri du lanbide heziketaren arloan eskumena duten bi administrazioen arteko lankidetzara, eta oinarriak ezarri dira lankidetzaren emankorragoa izan dadin, Hezkuntza Administrazioaren mende dauden prestakuntza zentroek betebeharrak garrantzitsuagoa izan dezaten enplegurako prestakuntzaren arlo honetan.

Plan estrategikoan zenbait jarduketa aurreikusi ziren lehen helburu horretan; horri lotuta zenbait ekimen garatu dira. S3ko eremuei lotutako prestakuntza premiak antzemateari dagokionez, bereziki landu dira sorkuntza industriak eta industria digitalak, gure komunitatean hedatzen jarraitzen baitute. Sektorearen premiei erantzuteko beharrezkoa den prestakuntzaren gaineko hainbat gairen inguruan duen ikuspegia azaldu du sektoreak berak; ildo horretan lankidetzan jarraitzen dugu.

Bestalde, berriazko zenbait harreman saio izan ditugu Nafarroa S3 Espezializazio Adimenduaren Estrategian aurreikusitako sei eremu lehenetsiko ordezkariarekin; horietan, besteak beste, prestakuntzaren funtsezko alderdiei buruzko hausnarketa egin da eta, berriaz, lanbide heziketako ikasleen prestakuntzan zeharkako gaitasunak indartzearen inguruan.

Horrez gain, bestelako kontaktuak ere izan dira beharizan zehatzak dituzten sektoreekin, besteak beste, estandak industriekin edota ibilgailu astunen sektoreekin; prestakuntza profesionala behar dute, gaur egun zailtasun handiekin betetzen dituzten jardura horietako lanpostu gakoetan pertsona espezializatuak emanen dituztenak prestakuntzak. Beharizan horiei erantzuteko baliatzen diren ikuspegietan prestakuntza duala indartzea nabarmentzen da, baita horrekin batera espezializazio prestakuntza ekintzak egin behar izatea ere, eremu zehatz horietan.

Heziketa zikloen eskaintzari dagokionez, eskaintza areagotzea hasieran planean aurreikusitakoa baino txikiagoa izan den arren, igoera hori S3 estrategiaren eremu lehenetsiekin lotutako zikloetan gertatu da. Horrez gain, sorkuntza industria eta industria digitalen eremuan eskaintzaren katalogoa zabaltzeko egin da, ilustrazioko goi mailako gradu ziklo berri batekin.

Curriculum berrikusi eta eguneratzeari dagokionez, 2019an zenbait egokitzapen egin dira estatu mailako oinarriko curriculum araudia Nafarroako araudira moldatzeko; zehazki, oinarriko lanbide heziketako hiru curriculum, berriazko lanbide heziketako erdi mailako gradu ziklo baten curriculum eta kirol ikasketen beste bi, berriazko lanbide heziketako goi mailako gradu bi curriculum eta arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako gradu bateko curriculum egokitu dira, eta lanbide heziketa bereziko curriculum berri bat garatu da. Zentroen eskaintza zehatzari ziklo garatu berri gisa gehitu zitzaizkien ilustrazioko diseinu eta arte plastikoetako goi mailako gradua.

Aurreko txostenean aipatu bezala, lanbide heziketako titulazioen katalogoa ia agortuta dago, eta zain gaude estatu mailako administrazioak titulazio berriak onar ditzan eta digitalizazio moduluak gaur egungo lanbide heziketako ziklo guztietan txerta daitezkeen, baita espezializazio ofizialak eskaintzan txertatu behar diren aztertze zain edo Nafarroako prestakuntza eskaintzan txertatzea interesgarria den beste edozein garatzeko zain ere.

Lanbide Heziketaren arloko adituek parte hartu dute aholkulari moduan (enpresa partzuergo edo enpresa elkarteekin hogeitak baino gehiago egin dira), informazioa eta orientazioa

emanez produkzio eta zerbitzuen sektoreetako ezaugarriei eta eskariei buruz eta prestakuntza profilen inguruko gaiei buruz, baita irakaskuntza zuzenaren alorrean ere. Azken alderdi horretan, 72 profesional espezialistak lagundu dute 2018-2019 ikasturtean. Irakaskuntza eman dute hainbat ikastetxetan eta heziketa ziklotan, eta beste hainbat esku hartze egin dituzte, kolaborazio puntual moduan, ikastetxeek haien ekimenez antolatuta.

1.2. helburuari dagokionez, lanbide heziketako zentroetan espezializaziorako prestakuntza eskaintzak garatzeari dagokionez, jada aipatu dugu nolako zailtasunak dauden enplegurako lanbide heziketaren esparruan ikastaroak egiteko. Hala ere, enpresen eta ikastetxeen artean proiektu bateratuak garatzean lankidetzat indartu egin da; besteak beste, nabarmendu behar diren proiektuen artean daude kobot bat plataforma mugikor adimendun bati akoplatzea eta urrutitik kontrolatzeko softwarea sortzea eta Biki digitala 4.0 proiektuak diseinatzeko metodo gisa; proiektu horietan modu bateratuan kolaboratu dute lanbide heziketako ikastetxeetako taldeek eta enpresek.

Hirugarren espezializazio ikastaroa txertatzeari dagokionez, zenbait proiektu pilotu abiarazi dira, espezializazio planak txertatzeko ziklo jakin batzuetako hirugarren mailan, prestakuntza espezializatua izanen duten teknikariak lortzeko ibilgailu astunen elektromekanika bezalako sektoreetan edo estanpazioaren eremurako doitzailak lortzeko. Horrez gain, autokontsumo fotovoltaiakoaren esparruan energia berriztagarrien arloko espezializazioaren bati heldzea ere aztertu da.

1.3. helburua

Enpresek ikasleen praktikekin eta Lanbide Heziketa dualarekin duten konpromisoa bultzatzea


Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Lantokietako Prestakuntzako ikasleak hartzen dituzten enpresen kopurua		1750
Lanbide Heziketa Dualean parte hartzen duten enpresen kopurua		400
Lanbide Heziketa Dualean parte hartzen duten ikasleen kopurua		800
Prestakuntza dualean parte hartzen duten eta behar bereziak dituzten ikasle taldeen kopurua		3


Azken urteetan koiuntura ekonomikoa aldekoa izan da, eta, horrekin batera, enpresek bilakaera teknologiko azkarra izan dute; bidenabar, ikuspegi demografikoaren arabera erretiroa hartzeko adinetik gertu dauden pertsonen erreleboa ematea zaila izanen da, hain justu ere enpresen funtzionamenduan ezagutza erabakigarria eskaintzen dutenak; horrek guztiak neurri handiagoan bultzatu du pertsona horiek lanbide heziketako ikasleen prestakuntzan lehenagotik zeukaten parte hartze handia, prestakuntza tekniko osatzeko zein bestelako zeharkako gaitasunak eskuratzeko parte hartzea, hori lortzea zailagoa baita eskola testuinguruan. Parte hartzea areagotu da bai lantokietako prestakuntza eredu tradizionalan, zein lanbide heziketa dualaren modalitate berrian; Foru Komunitateko Administrazioak ere modu tinkoan bultzatu du, prestakuntza hobetzeko eta laneratzea indartzeko eredu modura.

Eraginaren lehen adierazleari dagokionez, 2018-2019 ikasturtean prestakuntza alternantziako

ekintzak jarri ziren abian 1.753 enpresa kolaboratzailerekin, Lanbide Heziketako ikasleen hainbat prestakuntza modalitatetan laguntzeko. Horietatik 205 enpresa Lanbide Heziketa dualeko ekimenetan izan ziren, 82 lankidetza hitzarmen sinatuz; potentzialki eskuragarri dauden hitzarmen askoz gehiago dago.

Ikasleei dagokienez, 2018-2019 ikasturtean 582 ikasle egon ziren modalitate dualean matrikulatuta, 14 ikastetxetan. Ikasle horietatik 272 enpresako prestakuntza fasea garatzen aritu ziren, 2019-2020 ikasturteko matrikulazioan 1.204 ikasle izan dira lanbide heziketako 16 zentrotan; horrek erakusten du prestakuntza modalitate honek progresio azkarra daukala, grafiko hauetan ikus daitekeen moduan:





Planean berrikuspen honen aldiari helburu honetara bideratutako ekintzen artean daude honako hauek:

- Hezkuntza administratibotik Lanbide Heziketa duala bultzatzea, modalitate arrunteko eskaintzak modalitate dual bihurtzeko aukerak malgutuz.
- Prestakuntzako eta lagun egiteko ekintzak aplikatzea, berariaz praktiketako tutoreei eta enpresetako prestakuntza dualekoei bideratuta.

Hain zuzen ere, hezkuntza administrazioak modu tinkoan bultzatu du Lanbide Heziketa duala, nahiz eta oraindik estatu mailako hezkuntza sisteman prestakuntza duala arautzea ez den nahi bezainbeste garatu, horrelako eskaintzak garatzeko baldintzak argitzea ekarriko duena.

Modalitate dualeko eskaintza mailaka aplikatzeak berekin dakar ikastetxeetako eta enpresetako tutoreei berariaz bideratutako prestakuntza espezifikoko ekintzak egitea. Horren haritik, prestakuntza bateratuko egitasmo pilotu bat garatu da, zentroko tutoreen eta enpresekin, hezkuntza administrazioaren eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberarekin lankidetzan; bidenabar, beste berariazko ikastaro bat egin da, zentroko tutoreak prestatzeko; lanbide heziketako 22 irakasle hartu dute parte.

Helburua lankidetzat horri eustea da, ETE eta mikroETEn proiektu bateratuak aztertuz, Lanbide

Heziketa dualean parte hartzea bultzatzeko, baita enpresa kolaboratzaileak identifikatu eta prospekzioko beste jardura batzuetan ere.

1.4. helburua

Lanbide Heziketak enpresen nazioartekotzean laguntzea.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Atzerrian prestakuntza egonaldiak egiten dituzten ikasleak		260
Atzerrian prestakuntza egonaldiak egiten dituzten irakasleak		45
Nafarroan prestakuntza praktiketan atzerriko ikasleak hartzen dituzten enpresen kopurua		100

Nazioartekotzearen dimentsioak presentzia handia izan du beti Nafarroako Lanbide Heziketan ikasleei zein zentroetako irakasleei zuzenduta Hezkuntza Departamentutik bultzatu diren ekimenetan. 2018-2019 ikasturtean bete egin da 2019. urterako Plan Estrategikoan planteatutako ikasleen mugikortasun helburua; izan ere, 258 ikasle mugitzea lortu da; horrek esan nahi du aurreko ikasturtearekin alderatuta ia % 15eko igoera izan dela.

Bidenabar, irakasleentzat ezarritako helburua lortzera ere nahiko gerturatu gara; kasu horretan, 42 irakasle mugitzea lortu da, aurreko ikasturtean baino % 40 gehiago. Lanbide Heziketako irakasleen artean 10 beka individual eman dira, Departamentuak bultzatuta, irakasleentzat ad hoc antolatutako interes bereziko egonaldietan parte hartzeko beste 32 beka eman zaizkie 4 irakasle talderi, prestakuntza egonaldiak egiteko Alemanian, Danimarkan, Finlandian eta Herbehereetan.

Atzerriko ikasleak Nafarroan hartzeari dagokionez, 2018-2019 ikasturtean 68 prestakuntza egonaldi hartu dira, 53 kasutan Alemaniatik iritsitako ikasleak izan dira, eta 15 irakasle; horrek esan nahi du aurreko ikasturtearekin erkatuta % 172ko igoera egon dela.

Plan Estrategikoan helburu horrekin batera jasotako beste jarduketa batzuek hizpide zituzten enpresekin akordioak ezartzea nazioartekotzea bultzatzeko eta horien prestakuntza hobetzea. Eremu horretan horrelako ekintzak egiteko enpresekin sei hitzarmen gehigarri ixtea lortu da.

Horrez gain, Lanbide Heziketaren kalitatea hobetzeko Europa mailako proiektuetan parte hartzea ere aipatu zen planean; horren haritik, berrikuntzako sei nazioarteko proiektutan parte hartu da:

- Pyrene: Lanbide heziketako ikasleen mugaz gaindiko mugikortasun proiektua, EAE, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Akitania eta Okzitaniarekin.
- Junior Job Coach: Lanbide Heziketako beheragoko mailetakoko ikasleek eskola uztea saihesteko proiektua.
- CREHUB: LHarekin lotuta kultura eta sorkuntzako enpresak garatzea bultzatzen duen proiektua.
- SEED: AINEkin batera garatutako proiektua, Nekazaritza digitalean Agroforestal IBko ikasleen mugikortasunerako.
- FORMANAEN: Langileek mugaz gaindi mugitzea errazteko eskualde arteko proiektua.

- NAVE: Arriskudun ikasleen mugikortasuna kudeatzeko lankidetza proiektua Herbehereak, Italia eta Finlandiarekin.

Horrelako ekintzak garatzeko Europan beharrezkoa den kolaboratzaileen sarea 17 bazkide berriekin handitu da Alemanian eta Frantzia, eta Europako 38 enpresa berriekin lankidetzan aritzeko harremana eskaini dute.

Azkenik, atzerriko egonaldiari begira hizkuntzak ikasteko prestakuntza ekintzei dagokienez, 6 ikastaro egin dira Lanbide Heziketako zentroetan eta bost helmugako herrialdeetan; 183 ikaslek hartu dute parte (aurreko ikasturtearekin alderatuta igoera % 66 baino gehiagokoa izan da), baita 18 irakaslek ere (kasu honetan % 28ko beherakada izan da). Bidean, hizkuntzak ikasteko prestakuntza online egiteko 79 lizentzia izapidetu dira Erasmus beka lortu duten ikasleentzat.

1.5. helburua

Sormena, ekimenerako adorea eta berrikuntza indartzea Lanbide Heziketan

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko	2019
Berrikuntza teknologikoko proiektuen kopurua		13
Arlo horietan abian jarritako ekimenen kopurua		7
Sorkuntza, ekintzailatza eta berrikuntza ekintzetan parte hartzen duten ikasleentzen ehunekoa		2

Plan Estrategikoan, helburu horretan zenbait jarduketa aurreikusi ziren ekintzailatza eta sorkuntza eta berrikuntza aplikatuko esparruetan proiektuak garatzea sustatzeko, beste entitate batzuen parte hartzearekin eta horretarako egindako deialdien estimuluekin.

Lanbide Heziketako berrikuntzako proiektuen 2018-2019ko deialdian sei proiektu onartu ziren; horietako bik oinarri metodologikoa zeukaten, eta beste bik oinarri teknologikoa. Onartutako proiektuen izenak honako hauek izan ziren:

- Mekanizatu tailerreko digitalizazioa 4.0 industrian integratzeko.
- Robotika kolaboratiboko lanpostu didaktikoa, lengoia naturaleko interfazeetan oinarritua.
- Kobot bat plataforma mugikor adimendun bati akoplatzea eta urrutitik kontrolatzeko softwarea sortzea
- Biki digitala 4.0 proiektuak diseinatzeko metodo gisa
- Ikasketa integralaren simulazio klinikoko metodologia
- Tafolapp, Android eta IOS plataforma batean app bat garatzea

Proiektu hauek Lanbide Heziketako hamar zentrok garatu dituzte; horietako bi eskusiboki zentroek bideratu dituzte, eta beste bietan enpresa pribatuak ere kolaboratu dute, zentroekin modu bateratuan lan eginez.

Horrez gain, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak deitutako berrikuntza proiektuen

estatu mailako sariketan ere parte hartu da; beste proiektu batzuetan parte hartzea lortu da, une honetan hasierako fasean daudenak.

Bidenabar, berrikuntza teknologikoko ekitaldietan bost parte hartze izan dira:

- Siemens prototipoen lehiaketa. Bi zentrok hartu zuten parte, bakoitzak proiektu batekin: Virgen de Camino IBP, “Prestakuntza mekatronikoa 4.0 industrian” proiektuarekin, eta San Juan – Donibane IB, “Biki digitala” proiektuarekin.
- Spainskills. Lanbide Heziketako estatu mailako lehiaketetan parte hartu genuen 10 skilletan parte hartuz, 11 parte hartzaile eta 10 tutoreren presentziarekin; horrek esan nahi du orain arte estatu mailako lehiaketa batean Nafarroak izan duen ordezkariarik handiena izan zela. Parte hartze horrekin urrezko domina bat, zilarrezko domina bat eta brontzezko domina bat lortu ziren, Zura, Altzaria eta Kortxoia eta Elektrizitatea-Elektronika familia profesionaletan.
- WorldSkills Kazan 2019. Lanbide Heziketako mundu mailako lehiaketan “25. Zurgintza” espezialitatean parte hartu zen. Ekitaldian lau lagunek hartu zuten parte: lehiakide bat eta beste hiru lagun Nafarroako ordezkari modura (bi tutore eta Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat).
- COOP Mugaz gaindikoa. “2. Berrikuntza Lanbide Heziketako ikastetxeetan” lantaldea.

Sorkuntzaren eta ekintzailatzaren eremuan gaitasunak eskuratzea bultzatzeko jarduketak ere garatu dira. 2019ko apirilean Berrikuntzaren, Sormenaren eta Ekintzailatzaren Astearen VIII. edizioa egin zen; 1.140 ikasletik gora eta 46 irakasle baino gehiago batu ziren. Iruñean, Tuteran eta Elizondon garatutako jardueren artean ikasleei zuzendutako 18 tailer antolatu ziren, 50 irakasleren parte hartzea izan zuten eta beste lau jardunaldi ere prestatu ziren, beste 46 irakasleren parte hartzearekin.

Bidenabar, Hezkuntza Departamentuaren eta ANELen arteko hitzarmena berritu zen, Lanbide Heziketako Nafarroako ikastetxeetan gizarte ekintzailatza lantzeko. Joan den ikasturtean ekimen pilotua egin zuten hiru ikastetxeei orain Lizarrako IBP, Burlatako IB eta Virgen del Camino LH eta IBP gehitu zaizkie, 40 ikasleren, 3 irakasleren eta ANELEko hiru teknikariren parte hartzearekin.

Berrikuntza, sorkuntza eta ekintzailatza garatzeko helburu honen barruko beste ekintza batzuen artean “Artearekin Hazi” programan parte hartu da berriz ere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta Barañango Auditorioarekin elkarlanean. Bertan, laneko arriskuen prebentzioa eta osasuna jorratzen da artearen bitartez. Beste egitasmo batzuei dagokienez, Simulatutako Enpresen X. Azoka aipatu behar da; Lanbide Heziketako hamaika zentrok hartu zuten parte.



2. ARDATZA: Gure gizartearen kohesioa eta jasangarritasuna sendotzeari egindako ekarpena.

Planaren ardatzetako batek gure komunitateko lurralde kohesioa eta kohesio soziala bermatzea du xede, eta zenbait helburu ezarri ditu ildo horretako jarduketak finkatzeko.

2.1. helburua

Bermatzea Lanbide Heziketak erregioko jardura ekonomikoko arlo guztietan kualifikazioko beharrak asebeteko dituela.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Hezkuntza Departamentuak eskainitako Lanbide Heziketako tituluen kopurua		120
Enplegurako prestakuntza eskaintza desberdinak (landunentzat, langabeentzat, proiektu bereziak)		340

Helburu hau garatzean, Planean ebatzi zen arreta berezia jarriko zela Lanbide Heziketako eskaintzan, produkzio eta zerbitzuen sektoreen beharrezan erantzuna emateko helburuz, betiere lurralde eskaerak ahaztu gabe; horrekin batera, hezkuntzako arduradun gisa, populazioaren kualifikazio orokorra areagotzearekiko eta eskola modu goiztiarrean uztea murrizten laguntzeko konpromisoa ere gogoan hartu behar da, prestakuntza eskaintza kalitatezkoa eta erakargarria dela zaintze aldera.

Lehenago ezarritako helburuak lortze aldera, sistematikoki egiten den prozesuetako bat aurreko ikasturteko ikasleen eskari eta eskaintza aztertzea da, egokitzen ahalegintzeko eta, ahal den neurrian, ikasleen eskariak eta eskualdeko ekoizpen merkatutik iritsitakoak bat egin dezaten saiatzeko.

Bide horretan, berriazko hainbat azterlan egin dira Sakanako eremuko beharrezan eta Iruñerriko txikizkako merkataritzako sektorearen beharrezan dagokionez, eta sorkuntza industria eta industria digitalen eskarrietan sakondu da, aztertutako beste eremu batzuen artean.

Hasierako Lanbide Heziketako prestakuntza eskaintzari dagokionez, Hezkuntza Departamentutik 2018-2019 ikasturterako eskainitako titulazioak 16 ziklo izan ziren oinarritzko Lanbide Heziketan, 38 ziklo erdi mailakoan, eta 57 ziklo goi mailakoan, baita 4 lantegi profesional eta Lanbide Heziketa Bereziko 13 ziklo ere. 2019-2020 ikasturtean eskaintza areagotu egin zen goi mailako graduak 58 ziklora iritsi arte, Ilustrazioko diseinu eta arte plastikoetako goi mailako gradu berria txertatuz. Hala, Lanbide Heziketako 112 titulazioko kopurura iritsi gara; horiei gehitu behar zaizkie hiru tailer profesional eta berriazko Lanbide Heziketako 13.

Eskaintza berrikusi eta doitzeari dagokionez, gradu erdiko lau ziklo berri (% 11) eta goi mailako



bi ziklo berri (% 3,5) gehitu ziren; hala, titulazio eskaintza gerturatu egiten da gure komunitatean ikuspuntu kualitatibotik modu arrazoizkoan bideragarria den eskaintzaren espektora.

Enplegurako prestakuntzari dagokionez, 2019an prestakuntza guztira 16.739 parte hartzaileengana iritsi zen; guztira 1.171 prestakuntza ekintzetan parte hartu zuten, honako taula honetan ageri den moduan:

ENPLEGURAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA	IKASTARO KOP.	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Sindikatu eta enpresa planak (sektore arteko programak)	477	6.564
Planak: Gizarte Ekonomia	46	536
Planak: pertsona autonomoak	45	714
Planak: prestakuntza zentroak (2018tik desgaitasuna)	7	97
S3 Espezializazio Adimentsua (2019tik)	33	455
PERTSONA LANDUNAK GUZTIRA	608	8.366
Langabeak	131	1.853
Langabeak (HEZKUNTZA)	0	0
PERTSONA LANGABEAK GUZTIRA	131	1.853
ZENTROEN PROGRAMAZIOA, GUZTIRA	739	10.219
Iturrondo Zentroa	224	3.624
CENIFER	51	684
Proiektu bereziak	120	1.779
Profil estrategikoak (2019tik Iturrondo)	17	244
PROGRAMAZIO PROPIOA, GUZTIRA	412	6.331
Konpromisoa	7	73
Enpresa txiki eta ertainak	13	116
ENPRESETAKO PRESTAKUNTZA, GUZTIRA	20	189
ENPLEGURAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA, GUZTIRA	1.171	16.739

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak oso balantze positiboa egin du 2019ko ekitaldiari dagokionez; izan ere, ekitaldi horretan hiru mugarri garrantzitsu gertatu dira; lehen aldiz, Nafarroan S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren espezialitateari lotutako ikastaro berriak irakatsi dira Nafarroan (500 parte hartzaile inguru); garrantzia bikoiztu egin da proiektu berezien kasuan (880 ikasle izatetik 1.729 ikasle izatera), Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lurralde mailaren, enpresa sektoreen eta enpresen eskariei azkar erantzuteko lerroa; eta % 23 hazi da pertsona langabetuen eta landunen parte hartzea prestakuntza ikastaroetan (2018an 8.289 pertsona izatetik 10.210 izatera), kudeaketan berrikuntza bat txertatzeagatik; hala, diruz lagundutako prestakuntza

entitateek uko egitea errazten da, beste interesdun batzuek laguntzak jaso ahal izateko.

Horrez gain, jarduera honetan eragile sozial eta ekonomikoek egindako ekarpena nabarmendu behar da, azterlanak, diagnostikoak, etengabe hobetzeko proposamenak eginez eta prestakuntza ekintzak planifikatuz. Prestatutako azterlan eta lan ugari [Errealitate Sozialaren Behatokiaren](#) webgunean kontsultatu daitezke.

2.2. helburua

Lanbide Heziketako ikasketak bermatzea hala eskatzen duten eskualdeetan.

Ardatz honetan ezarritako lerro nagusian, lurraldeko kohesio sozial eta lurralde kohesioari laguntzeari dagokionez, helburu horrek ezarri du Nafarroako lurraldeetan produkzio eta zerbitzuen sektoreetako eskariei estaldura emateko beharrari arreta jarri behar zaiola, baita lurralde kohesioa eusteari ere. Horretarako, ahalegina jarri da Iruñerrikan kanpo eskaintza egokia ematean, Lanbide Heziketa euskaraz izateko eskariari erantzuna ematean eta bestelako eskaintza modalitateak indartzean, prestakuntza bideragarria izateko zentroetan prestakuntza jarraitua modu presentzialean ezinezkoa zaien eta bestelako alternatiba batzuk behar dituzten komunitateentzat, ikastea lanarekin eta familiarekin uztartu ahal izateko.

Planean ezarritako eraginaren adierazleek honako helburu hauek ezarri zituzten 2019. urterako:

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Iruñetik eta Iruñerrikan kanpo eskaintako hasierako Lanbide Heziketako taldeen ehunekoak.		% 31
Iruñetik eta Iruñerrikan kanpo Nafarroako eskaintza orokorrarekin alderatuta eskaintako hasierako Lanbide		% 32
Euskaraz eskaintako edo emandako tituluen ehunekoak.		%19

Adierazle hauetarako lortu diren datu zehatzek adierazi dute Iruñetik eta Iruñerrikan kanpo eskaintako hasierako Lanbide Heziketako taldeen ehunekoa % 25,2 dela; hortaz, planean jasotako proposamenetik urrun dago. Egoera honetan gero eta eragin handiagoa duen faktoreetako bat populazioaren mugimendu zentripetua dela esan dezakegu, hain justu ere hiribururantz eta eskualderantz; hala, gero eta zailagoa da Nafarroako eremu jakin batzuetan prestakuntza eskaintzari eustea, eremu horietan populazioak nabarmen egin duelako behera. Are gehiago, egiaztatuta dago Nafarroan Iruñetik eta Iruñerrikan kanpo eskaintzen diren plazen kopuru nabarmen bat hiriburutik iritsitako ikasleekin ere betetzen dela, eta ikasleen ratioak taldeka sistematikoki txikiagoak direla; hala, landa eremuak husten ari direla azaltzeko beste ezaugarri baten modura interpretatu daiteke.

Aurreko emaitza interpretatzera bultzatzen gaituen elementuetako bat eskaintzaren erakargarritasuna da; hala ere, Iruñetik eta Iruñerrikan kanpo eskaintzen diren hasierako Lanbide Heziketaren titulazioen ehunekoa ia % 40 da Nafarroako eskaintza orokorrarekin erkatuta; planean ezarritako helburua baino askoz altuagoa da. Horrenbestez, askotariko eskaintza da, eta ikasle potentzialei eskaintza erakargarria egiten zaie. Datu horrek ematen duen beste alderdi bat da

hasierako Lanbide Heziketako ikastaroak egiteko plazen eskaintza handiagoa dela Iruñetik eta Iruñerrietik kanpo hiriburuan baino.

Euskaraz eskaintzen den Lanbide Heziketari dagokionez, euskarazko eskaintza duten edo euskaraz ematen diren tituluen ehunekoen aurreikuspenak lortu dira, eskaintzaren % 19,44ra iritsiz; euskaraz eskaintzen diren ikasle taldeen ehunekoari dagokionez, datua % 6 da.

Eskaintza arruntetan parte hartu ezin duten pertsonentzat prestakuntza aukerak hedatzeari dagokionez, presentzia handia izaten jarraitzen dute prestakuntzako ekimenetan, online modalitatearen eta modalitate erdi-presentzialaren bitartez. Mailaka igotzen ari dira egiteko interesa duten pertsonen prestakuntzarako sarbidea malgutzen duten eskaintzak, bai sareko prestakuntzaren bitartez bai eskaintza erdi-presentzialen bidez. Online eskaintzen den prestakuntzaren eskaintzan Lanbide Heziketako hamahiru ziklo daude; ikasleei dagokienez, 1200 pertsona ingurukoa da, eta Lanbide Heziketako ikasle guztien % 10 baino gehiago hartzen du.

2.3. helburua

Lanbide Heziketa bukatzen duten ikasleen kopurua handitzea

Eskola uztea gutxitzeak lehentasuna izaten jarraitzen du hezkuntza maila guztietan, bereziki nahitaezko eskolaratze mailetan, baina baita Lanbide Heziketako nahitaezko mailen ondoren ere. Planean 2019. urterako ezarritako helburuak taula honetan jaso dira:

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Oinarrizko Lanbide Heziketako (1. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua		25
Erdi mailako Lanbide Heziketako (2. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua		15
Goi mailako Lanbide Heziketako (3. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua		10
Lanbide Heziketako ikasketak uzten dituen eta hezkuntza behar bereziak dituen ikasle kopurua		4
Hezkuntza behar bereziak dituen eta ikasketetara erreserba kupotik sartu den ikasle kopurua		92

Jarraian jaso diren datuek Lanbide Heziketako ikasketen uzte tasa adierazten dute; Lanbide Heziketako ziklo presentzial batean hasi berri den ikasleetatik hurrengo ikasturtean matrikulatu ez den ikasleen kopurua adierazten duen ehunekoa da.

Adierazleek hurrengo taulan islatutako balioak erregistratu dituzte:

Eraginaren adierazleak:	
Oinarrizko Lanbide Heziketako (1. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua	% 10,23

Erdi mailako Lanbide Heziketako (2. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua	% 6,57
Goi mailako Lanbide Heziketako (3. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua	% 6,26
Lanbide Heziketako ikasketak uzten dituen eta hezkuntza behar bereziak dituen ikasle kopurua	% 13,79
Hezkuntza behar bereziak dituen eta ikasketetara erreserba kupotik sartu den ikasle kopurua	100

Eskola uzteari buruz ari garenean ez dago zifra onik; hala ere, esan dezakegu Lanbide Heziketako datuek Europa 2020 Estrategiak ezarritako helburuak betetzen dituztela; izan ere, estrategia horrek prestakuntzaren arlo honetan uzte tasa % 10 inguruan ezartzen du. Aurreko taulan jasotako zifrek hala erakusten dute; hala ere, ñabardura txiki bat egin behar da, hain justu ere hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek ikasketak uzteari dagokionez; izan ere, batez ere oinarritzko Lanbide Heziketako zikloetan eta goi graduatuko zikloetan gertatzen da, hau da, Lanbide Heziketako espektroaren bi muturretan; ezaugarri hori sakon aztertu behar da eskola uzteko kontzentrazio hori azaldu ahal izateko.

Bestalde, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle guztiak, eta, espektroa handituz, hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak, erreserba kupoaren bitartez sartzen dira; izan ere, hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek erreserbatutako plazen % 97 hartzen dute.

Bigarren aukerako proiektuei buruzko informazioa kanpoan utzi da izen hori zeukaten jarduketak desagertu egin direlako; antzeko ekintzak beste programa batzuetan bildu dira eta, hala, zaila da kategoria horretan identifikatu eta neurtzea.

2.4. helburua

Prestakuntza kolektiboen beharrei egokitzea Lanbide Heziketan errazago sar daitezen.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Hezkuntza laguntzaren aldetik premia bereziak dituzten pertsonen kopurua, hasierako Lanbide Heziketan matrikulatua		14
Desgaitasuna duen jendearen enplegurako ekintzak		4
Gaitasun Profesionala Ebaluatzeko eta Egiaztatze prozesuetako parte hartzaileak		300

Atal honetan hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei bereziki zuzendutako ekintzak jaso dira, baita ikasketak esperientzia profesionalaren bidez edo prestakuntza ez formalaren bidez egin dituzten pertsonen kualifikazioa modu ofizialean aitortzeko aukera bat izatea errazteko ekintzak ere.

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak Lanbide Heziketan gehitzeari dagokionez, 2019-2020 ikasturtearen hasieran berariazko premiak dituzten 253 ikasle matrikulatu ziren eta, guztira, hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten 1.115 ikasle. Lehen kasuan lanbide prestakuntzako ikasleen % 2,10 hartzen dute, eta bigarren kasuan berriz, zifra Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleen % 9,20ra iristen da.¹

Beste ikuspuntu batetik erreparatuz gero, 2019-2020 ikasturtean, Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen % 56,5 daude Lanbide Heziketako irakaskuntzetan matrikulaturik. Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketako bigarren graduaren hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasle guztiak aztertuz gero, % 67,1 Lanbide Heziketan matrikulatuta daude.

Bestalde, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zazpi prestakuntza ekintza egin ditu desgaitasuna duten pertsonentzat, horietako hiru proiektu berezien modalitatean egin dira, Nafarroako Down Syndrome Elkarteak sustatuta.

Bakarrik iritsitako migratzaile adingabeei arreta emateko Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuek elkarrekin aurreko urteetan hasitako ekintzei dagokionez, hain zuzen ere laneratzeko eta gizarteratzeko laguntzeko edo hezkuntza sisteman modu normalizatuan integratzeko lanbide prestakuntza emateko ekintzei dagokionez, 2018-2019 ikasturtean 60 adingabe artatu dira lanbide heziketako zazpi zentrotan, profil profesional desberdinen bitartez.

Langabe helduen, berrorientazio profesionala behar dutenen eta titulazio edo ziurtapen akademikorik ez dutenen prestakuntza beharrak asetzeko malgutze neurriak hartzei dagokionez, online eskaintzaren eta eskaintza erdi-presentzialaren bitartez ekintzak ezarri dira; 2019-2020 ikasturteari dagokionez, oso zifra garrantzitsuak eman ditu, 1.400 ikasle ingururen parte hartzearekin. Bidenabar, teknikari eta goi mailako teknikarien zenbait titulu lortzeko azterketa libreen deialdiak egin dira, eta 1.250 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

Azkenik, ebaluazio prozedurari, gaitasun profesionala aitortu eta egiaztatzei dagokionez, 2019ko deialdian kualifikazio profesional ugari sartu dira, kualifikazio maila askotakoak. Mailaka antolatuta, honako hauen deialdia egin da:

¹ Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle gisa ulertzen dira desgaitasunaren edo jokabide nahasmendu larrien ondorioz hezkuntzako laguntza eta arreta berezia behar duten ikasleak. Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek ohikoa ez den hezkuntza arreta behar dute, hezkuntza premia bereziak dituztelako, ikasteko zailtasunak dituztelako, arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua dutelako, adimen gaitasun handiak dituztelako, hezkuntza sisteman berandu sartu direlako eta egoera pertsonalarengatik edo eskola historiarengatik.

I. maila

- Etxeko langileen enplegua
- Gainazalak eta altzariak garbitzea eraikinetan
- Biltegiko eragiketa osagarriak
- Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak

II. maila

- Salmenta jarduerak
- Saltoki txikiak kudeatzeko jarduerak.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako arreta ikastetxeetan
- Farmazia

III. maila

- Tanatopraxia.

Deialdietan 814 pertsona interesdun erregistratu ziren, eta haietatik 378k eman zuten izena, prozeduretan 326k hartu zuten parte eta prozedura 306 hautagaik osatu zuten.

Ahalegin garrantzitsua egiteari eutsi zaio deialdien hedapena hobetzeko eta hautagai izan daitezkeen pertsonen zuzendutako informazioa zabaltzeko, azkenean prozeduran parte hartzeko eskatu dutenek hobeki ezagutu dezaten zein izaera duen eta zein aukera eskaintzen dituen. Horren adierazle modua aski da esatea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko arloan egindako informazio bileretan 210 pertsona bertaratu zirela ikastetxeetan.

2.5. helburua

Sarean lan egitea, bizitzaren joan-etorrian lanbide prestakuntza eta kualifikazioko jarduketan koordinazioa hobetzeko.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Ikastetxe integratuetako gizarte kontseiluen bilerak		36
Nafarroako Kontseiluaren edo batzorde delegatuen bilerak		16

2018-2019 ikasturtean 32 bilera egin zituzten Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetako gizarte kontseiluek. Zentro integratuetan parte hartze sozialerako organo horiek, lan eta hezkuntza administrazioko ordezkarien eta eragile ekonomiko eta sozialen presentzia izanik, ez dute lortu zentroa inguru sozial eta ekoizpen inguruarekin lotzea ekarriko duen funtzionamendu dinamika, edo ez behintzat lortu nahi den neurrian, nahiz eta aurrerapenak egin diren kontseiluetan eragile ekonomiko eta sozialen ordezkartza hobetzen.

Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluari dagokionez, 2019an bi osoko bilkura baino ez dira egin, eta Akreditazio Batzordearen bilera gehigarri bat, gai honetan Kontseiluaren delegatua den aldetik. Jarduerak ez ditu lortu adierazleetan ezarritako balioak; gainera, gaur egun duen osaera

kontuan hartuz Kontseiluarentzat asmo handikoak zirela aitortzeaz gain, 2019. urtean hauteskundeak egin izanak ere eragina izan du, horren ondorioz erakundeen ordezkariak berregokitu egin behar izan direlako.

2.6. helburua

Lanbide Heziketa egin ondotik lana lortu duten ikasleen kopurua handitzea

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Lanbide Heziketatik ateratzen diren ikasleen laneratzearen ehunekoa, ikasketak burutu eta hurrengo 12 hilabeteetako		70
Lanbide Heziketatik ateratzen diren eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen laneratzearen ehunekoa, ikasketak burutu eta hurrengo 12 hilabeteetako		50

Lanbide Heziketako ikasketak amaitu berri dituzten ikasleen laneratze ehunekoaren adierazleari on egin dio koiuntura ekonomikoaren egoera positiboak eta enpresa jardunaren indarrak; hala, produkzio eta zerbitzuen sektore batzuen eskariaren aurrean erantzuteko gaitasuna ez da aski. Ohikoa denez, goi mailako ikasketekin jarraitzen duten ikasleen ehunekoa nabarmena izateak ere eragin handia du.

2018-2019 ikasturteari dagokionez, ikasketak bukatu eta hurrengo hamabi hilabeteetan ikasleen laneratzea % 50,14koa izan da; harrigarriki, aurreko ikasturte akademikoko datua baino pixka bat baxuagoa da, orduan ikasketak amaitu zituzten ikasle guztien % 51,27koa izan baitzen laneratzea. Azalpena emate aldera esan daiteke laneratzearen ehunekoan ikasten jarraitzen ez duten ikasleak hartzen badira kontuan, orduan datua % 86,34koa izanen litzatekeela, eta aurreko ikasturtean, berriz, % 83,6koa izan zen.

Azkenik, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak egindako jarraipenaren arabera, % 42 laneratuta daude. Zifra hori zehaztu egin behar da; azaldu behar da gehienak lan zentro babestuetan ari direla lanean, Eskubide Sozialetako Departamentuaren laguntzekin; horrenbestez, zinez ez daude lan modalitatean lanean baizik eta lanerako modalitatean; ikasketak 2018-2019 ikasturtean bukatu zituzten ikasleetatik % 51,6k ikasten jarraitzen dute eta 6,4 ez dira ari ez ikasten, ez lanean.

3. ARDATZA: Lanbide Heziketa indartu eta etengabe eguneratzea.

Ardatz honek jasotzen ditu zein helburu eta zein jarduketa neurri behar diren Lanbide Heziketa egokitzeko Zentro Integratuek eta Estatuko Erreferentziazko Zentroek dituzten beharretara eta eskaini behar dituzten zerbitzuetara.

3.1. helburua

Lanbide Heziketarako azpiegiturak eta teknologiak egokitzeko baliabideak handitzea.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Eraikuntza obretako eta instalazioak birgaitzeko inbertsioetara bideratutako bolumen ekonomikoa (milaka eurotan)		9.320
Ekipamendu teknologikoak erosteko inbertsioetara bideratutako bolumen ekonomikoa (milaka eurotan)		2.450

Planteatutako helburua betetzeko, Planak honako jarduketa hauek planteatzen ditu:

- Azpiegituretarako, ekipamenduetarako eta instalazioetarako zuzkidurak handitzea aurrekontuetan.
- Enpresen lankidetzaren indartzea ekipamenduak modernizatzeko.

Azken urte hauetan ahalegin handia egin da azpiegitura, instalazio eta ekipamenduetan inbertsio urria iraultzeko, aurreko hamarkadaren amaieratik zetorrena, behar ziren hobekuntzak egiteko Lanbide Heziketako zentroen azpiegituretan. Aurreko legegintzaldian oso ahalegin handia egin zen landu gabe geratu ziren premiei arreta ematea berreskuratzeko.

Adierazleen aurreikuspenean ikus daitekeen moduan, 2019. urterako inbertsio piko handia aurreikusi zen, eta urte horretan Baztan, Malerreka eta Bortzirietako eremuari estaldura emanen zion lanbide heziketako zentro berria eraikitzeari ekinen zitzaiola uste zen. Hainbat arrazoi tarteko obra horri ekitea ezinezkoa izan zen, eta, hortaz, inbertsioen kopurua aurreikusitakoa baino askoz baxuagoa izan da.

Hala ere, ekipamenduan inbertitzeari dagokionez, 2018an hasitako igoera garrantzitsuari eutsi zaio. Hala, ia 1.800.000 euroko inbertsioa egin da zentroetako ekipamenduetan, eta zentro horien erdien kasuan ekarpena erabili zen ekipo teknologikoak erosteko, gehienetan ondoren 4.0 industria arloetako prestakuntza indartzeko; horrez gain, 440.000 euro inguruko inbertsioa egin da azpiegiturak egokitzeko eta espazio eta instalazioak sortzeko, Lanbide Heziketako 13 zentroetan.

Ikastetxeetako ekipamendua modernizatzean enpresek eskaintako lankidetzari dagokionez, nahikoa elkarlan ohikoa dago enpresen eta ikastetxeen artean, eta lehenek bigarreni ekipamendu erabilgarria ematen die (ibilgailuak, robotak, berritutako ekipamenduak eta abar), ikasleen praktikak errazteko.

3.2. Helburua

Berrikuntza etengabea bermatzea arlo pedagogikoan.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Metodologia pedagogiko berriak aplikatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa		95
“Kimua” programa aplikatzen duten ikastetxeen ehunekoa		30
Aplikatutako berrikuntza pedagogikoko programetan dauden taldeen ehunekoa		35

Produkzio eta zerbitzuen sektoreko enpresek ziurtzat jotzen dute, gero eta gehiago, hasierako Lanbide Heziketak oinarrizko prestakuntza teknikoak ematen duela eta horri esker, ikasleek enpresetan lanean hasteko eta bakoitzaren eskaeretara egokitzeko aukera daukatela nahiko denbora laburrean. Azken urteetan, enpresek gero eta gehiago bilatzen eta estimatzen dute ikasleen zeharkako gaitasunak garatzeak daukan plusa, modu profesional gaituan lan egin ahal izateko.

Horregatik, planak zenbait ekintza proposatu ditu zeharkako gaitasun horiek sustatzeko, besteak beste, konpromisoa, ekimena, taldean lan egiteko gaitasuna, komunikaziorako trebetasunak, arazoak konpontzeko gaitasuna, malgutasuna, gaitasun digitala eta bestelakoak. Lanbide Heziketatik gaitasun horiek lantzearen aldeko apustua egin da, berrikuntza pedagogikoa bultzatuz, ikasteko metodologia aktiboak ezartzera bideratuz eta, batez ere proiektuetan oinarritutako ikasketa kolaboratiboko bidetik.

Berrikuntza pedagogikoa, batez ere, Kimua proiektuan kokatu da, Lanbide Heziketako ikastetxeetan metodologia aktiboak ezartzea bultzatzen duen proiektuan, hain justu ere; proiektu horren funtzionamendu eskema aurreko egikaritze txostenean azaldu zen.

Metodologia horiek modu mailakatuan ari dira hedatzen; izan ere, ikasketa-irakaskuntza metodologietan aldaketa handia dakar metodologia horrek, baina ereduak aurrera jarraitzen du. Hala, dagoeneko Lanbide Heziketako 28 zentro daude Kimua Sarean; horietatik 13 zentro hirugarren mailara iristear daude eta beste lau aitorten gorena lortzear daude (Kimua zentroa). Bultzada honen elementu eragile gisa guztira 33 dinamizatzaile daude eta esparru honetako egitasmoak bultzatzeko dagoeneko ikasketa metodologia aktiboetako prestakuntza jaso dute 220 gizona irakasle eta 379 emakume irakasle. Horretarako, laguntza plataforma bat jarri dute martxan:

<https://sites.google.com/educacion.navarra.es/plcnavarra/hasiera>

Baluartean joan den maiatzean egin zen lehiaketan 23 zentrok 42 proiektuekin parte hartzeak mugarria jar dezake jarduketa hauek garatzeko neurrien artean; ikasleek eta irakasleek diseinatu eta garatutako hezkuntza proiektu onenak lehiatu ziren (140 irakasle eta 180 ikasle, baita beste erakunde batzuetako 30 pertsona ere); pizgarri gisa erabil daiteke ondorengo ikasturteetan, baita egitasmo hauen erakuslehoi eta zentroen artean jardunbide onak trukatzeko foro gisa ere. Metodologia Aktiboen Jardunaldi hauetan 14 lan zentrori aitortu zitzaizkien proiektuetan egindako lana.

Hezkuntza Departamentuak gidatutako ekintza horiekin batera, zentroek ere metodologia aktiboak aplikatzen parte hartu dute beste departamentu eta entitate batzuekin. Hala, hiru adibide aipatzearren, Donibane IBk eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak modu

bateratuan egin dute lan laneko arriskuen prebentzioari buruzko proiektu batean, gai horren inguruko spotak ekoitziz; horrez gain, Salesianos IBPko Automozioko eta Robotika Industrialeko zikloko ikasleak lankidetzan aritu dira Nafarroako Autismo Elkartarekin eta Santa Luisa de Marillac ikastetxearekin batera espektro autistako nahasmenduak dauzkaten haurrak inguruarekin elkarrekintzan aritzea errazteko gailu elektronikoak diseinatu eta eraikitzen; edo, azkenik, Iruñeko Arte Eskolako Ikus-entzunezko graduko ikasleak eta Nafarroako Ospitalegunea lankidetzan aritu dira “Abentura ebakuntza gelan” ipuin gidaren bideoa sortzeko; haurren ebakuntza gelan ebakuntza izanen duten haurrei zein haien familiei informazio ulergarria eta adeitsua eskaintzeko sortu zen.

3.3. helburua

Lanbide Heziketako ikastetxe eredu malguagoa, hots, inguruko beharrei arin erantzuteko gai izanen dena garatzea.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Eredu berriari atxikitako ikastetxeen ehunekoa		100

Lanbide Heziketako Plan Estrategikoan landutako zentro integratuko eredu berria garapen araudian jaso behar zen, Lanbide Heziketako Zentro Integratuen Araudi Organikoa izanen zena. Eredu hori definitzea prozesu konplexua da; 2019. urtean zehar horretan aurrera egiten jarraitu da, baina ezin izan da guztiz osatu. Hala ere, garapena oso fase aurreratuan dago, Hezkuntza Departamentuak garatutako lana eta zentroetako ikastetxeek egindako ekarpenen ondoren; hortaz, baliteke araudi esparru berri hau nahiko denbora laburrean ematea aditzera.

3.4. helburua

Irakasleen prestakuntza eguneratzea, merkatu produktiboak ikasleek eskatzen dizkien kualifikazio beharretara egokitzeko.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Irakasleak eguneratzeko egindako ekintza espezifikoen kopurua		50
Enpresetan eguneratzeko ekintzak egiten dituzten irakasleen kopurua		150
Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak aratzeko prestakuntza ekintza espezifikoen kopurua		3

Lanbide Heziketako langileen etengabeko prestakuntzak funtsezko jarduera izaten jarraitzen du ikasketa-irakaskuntza prozesuen kalitatea bermatzeko eta ikasleen prestakuntzak produkzio eta zerbitzuen sektoreen premiei erantzunen diela ziurtatzeko.

2019. urtean irakasleak prestatzeko egindako jardueretan 96 prestakuntza ikastaro aipatu behar dira; zifra horrek ia bikoiztu egiten du urte horretarako Plan estrategikoan ezarritako adierazlearen aurreikuspena. Hala ere, enpresetan egonaldiak egitea hasierako aurreikuspenetatik oso urrun dago; izan ere, enpresetan egonaldiak egiteko hamar deialdi baino ez dira egin, eta azkenean bederatzik egin dute aurrera.


Bidenabar, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko berariazko prestakuntza ekintzei dagokienez, aurreikusitakoa baino maila baxuagoan gelditu gara; izan ere, horrelako ezaugarriak zituen ikastaro bakarra egin da.

3.5. helburua

Europako ratioetan aurrera egitea Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2019
Lanbide Heziketako emakumezko ikasleen ehunekoa		43
Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa		42

Nafarroan, Lanbide Heziketa egiten duten ikasleen kopurua Estatuko batez bestekoa baino hagitzez apalagoa da, eta, aldi berean, Estatukoa Europako ratioetatik urrun dago. Horrenbestez, desoreka agerikoa da lan merkatuaren eskariaren eta gure komunitatean ikasleek hautatutako prestakuntza aukeraren artean. Hala ere, azken urteetan hazkunde moderatua baina jarraitua antzeman da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu ondoren Lanbide Heziketa aukeratzen duten ikasleen kopuruan, grafiko honetan ikus daitekeen moduan:



H

Honako hau da aurreikusitako adierazleen jokabidea:

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2018/2019	2019/2020
Lanbide Heziketako emakumezko ikasleen ehunekoa		% 38,13	% 38,2
Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa		% 34,8	% 38,95

Lanbide Heziketako ikasketak egiten dituzten ikasleen ehunekoa kalkulatzeko erdi mailako zikloan matrikulatutako ikasleak baino ez dira hartu kontuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

bukatu ondoren lehen aukera horixe baita; goi mailako graduiko ikasleak ez dira kontuan hartu. Ikus daitekeen moduan, Lanbide Heziketan ikasten duten ikasleen ehunekoan hazkunde interesgarria gertatu da, nahiz eta bi adierazleak geratu diren ezarritako helburuetatik behera.

ONDORIO BATZUK

Orain arte emandako datuek bere horretan ondorioak azaltzen badituzte ere, merezi du zenbati alderdi nabarmentzea, Nafarroako Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa Egikaritzeko Urteko Txostenaren ondorio gisara.

1. ardatzean:

- S3 estrategia dela eta, 2019. urtean Lanbide Heziketaren barruan baliabide ekonomikoen helburu nagusia berriz ere bideratu da aipatutako estrategiaren eremu lehenetsietara.
- Heziketa zikloen eskaintzari dagokionez, 2019-2020 ikasturtean eskaintza areagotzea hasieran planean aurreikusitakoa baino txikiagoa izan den arren, igoera hori S3 estrategiaren eremu lehenetsiekin lotutako zikloetan gertatu da.
- Prestakuntza dualeko ikasleak pixkanaka areagotu dira, eta hazkundera mugatua izan da, prestakuntzaren modalitate hori arautzen duen Estatuko araudia ez garatzeak ziurgabetasuna eragiten duelako.
- Nazioartekotze eremuan jarduna nabarmen hazi da, egonaldien eta mugikortasunen kopuruan zein kanpoko enpresa eta bazkideetan.
- Berrikuntza eta sorkuntza presentzia handiko elementuak dira oraindik Lanbide Heziketako zentroen jardunean. Kimua sarea finkatu eta hedatzen ari da, eta sare honen barruko zentroen hedapen mailetan aurrera egin da. Berrikuntza teknologikoak ere jardura maila onean jarraitzen du zentroetan.

2. ardatzean:

- Lanbide Heziketako eskaintza dibertsifikatu egin da, bereziki zonetan, nahiz eta tituluen katalogoari titulu bakarra gehitu zaion; enplegurako Lanbide Heziketaren esparruan eskaintza hazi egin da.
- Enplegurako Lanbide Heziketaren arloan, arreta berezia eman zaie eskualdeetako prestakuntza beharrei eta enpresen eskariei, proiektu bereziak bultzatuz.
- Hazkunde diferentzial positiboa egon da, Iruñerriarekin alderatuta, Nafarroako beste eskualde batzuetako Lanbide Heziketaren eskaintzan.
- Hobekuntza nabarmenak egin dira eskola uzteko tasetan Lanbide Heziketako maila guztietan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen taldean salbu, kasu horretan igoera argia egon baita.
- Orientazio profesionalak sustapen garrantzitsua izan du, orientatzaileei zuzendutako berriarazo prestakuntzaren bitartez; Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin koordinatzeko lanei berriz ere ekin zaie, esparru horretan bi administrazioen arteko lankidetzak indartzeko.
- Bide ez formaletatik eskuratutako gaitasunak egiaztatze prozesuak zabaldu egin du aintzatesteko profil profesionalen eskaintza eta prozedura horretan parte hartze eskaintak ikaspostu kopurua. Arlo horretan eskumenak dituzten bi administrazioek deialdiak egin dituzte berriz ere.

- Lanbide Heziketako parte hartze organoen jardunak gelditu jarraitzen du eta ez da lortu Lanbide Heziketa sustatzean duten presentzia berraktibatzea.
- Lanbide Heziketako ikasleen laneratzeak hobetzen jarraitzen du eta % 86tik gora iritsi da (ikasten jarraitzen ez duten ikasleak erreferentziazat hartuta), koiuntura sozioekonomikoak lagunduta.

3. ardatzean:

- Lanbide Heziketako zentroetako azpiegiturretan zein ekipamenduetan egindako inbertsio ekonomikoak aurreko urteko erritmoari eutsi dio; Baztan, Malerreka eta Bortziriak eskualdeko zentro berria garatzeke dago.
- Irakaskuntzan teknologia berriak aplikatzea indartu da, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboaren bidez. Kimua proiektuak laguntza eta estaldura ematen dio eredu hori hedatzeari. Eredu hori aplikatzeko ahalegin handiak egin dira, irakasleak prestatzen eta haiei laguntza ematen ikastetxeetako dinamizatzaileen eta koordinatzaileen bitartez.
- Berrikuntza eta ekintzailetzako proiektuak dinamismo handiarekin egiten jarraitu da, zentroek ingurune sozial eta enprekin harremana izatea erraztuz.
- Lanbide Heziketako Zentro Integratuen Araudi Organiko berriaren proposamen arautzailea ia itxita dago; datorren urtean behin betiko onartzea espero da.
- Irakasleentzako prestakuntza ekintza berariazkoak ugaritu dira, espero zitekeenaren oso gainetik, nahiz eta ez den nahi bezainbateko maila lortu enpresetako egonaldien bidezko prestakuntzan.
- Lanbide Hezikuntza aukeratzen duten ikasleen ehunekoan igoera argia egon den arren, Europa mailako estandarretik urrun gaude oraindik; emakumeen ratioak oso igoera txikia izan du, eta pozteko modukoa ez den arren, moderatua da matrikularen igoera orokorrari dagokionez.

